

Getxo Antzokia

ABRARA ZABALDUTAKO LEIHOA, EMOZIOEN AGERTOKIA... GURE INGURUKO ARGI KULTURALA



Aparkalekua San Nikolas plaza berriaren azpian egonda da.

San Nikolaseko aparkalekuak 105 plaza izango ditu auzokoentzat

Egungo San Nikolas plazaren azpian egingo den lurpeko aparkalekuaren gaineko proiektuak jasotzen duenez, 105 plaza izango ditu auzokoentzat, horietako 4 pertsona el-barrituentzat.

Aparkalekua egiteko lanak Getxo Antzokia eta Musika Eskola berriak altxatzeko bigarren fasearen harira egingo dira, egun egiten ari diren hondeaketa lanekin batera. Lanak aurtengo uda aldera has litezke eta hamabi edo hamalau hilabete beranduago amaitu. San Nikolas plaza berriro zabalduko da herritarrek erabiltzeko, lurpeko aparkalekua ireki aurretik.

Egitasmo honen aurrekontua 3.600.000tik gora eurokoa da.

Gobernu taldea Algortako auzoan bizi direnei aparkaleku plaza horiek zelan eman aztertzen ari da.

Halaber, Getxo Antzokitik oinez 5 minutu baino gutxiagora dagoen esparru batean Algortako zerbitzura egongo den txandakako aparkalekua egitea bideragarria den jakiteko azterlanak egiten ari dira alde zuzenetik. Getxo Antzokia aipatu lekuan kokatzeko Algortako Metro geltokitik eta Bizkaibuseko autobus geltokitik hurbil dagoela ere hartu da kontuan.

Basagoiti Etorbideko oinezkoen zaldaina zabalik dago jada



Kultura zentro berria altxatzeko lanak direla eta, Basagoiti Etorbidean oinezkoen igarobidea zabalik utzi aldera lekutu den zaldaina irekita dago jada kale horretatik igarotzen diren pertsonentzat. Pasabide honek, oinezkoen joan-etorriak errazteaz gainera, herritarrei uneoro obraren jarraipena egitea ahalbidetzen die. Era berean, informazio eta erakusketak lekua da. Zaldainak segurtasun baldintza guztiak betetzen ditu, bai egiturari bai zoruari eta abarri dagokienez.

Udaletik, enpresa eraikitzailearen laguntzarekin, ahalegin berezia egiten ari da obran bertan egin beharreko lanak zein hain garrantzi handia duen obra atseginago egiteko asmatutako alboko elementuetan egin beharreko lanak hobetzeko neurriak bilatu eta egokitu aldera. Horren emaitza da oinezkoen zaldaina zabaltzeko kontratuan aurreikusitako eguna baino bi hilabete lehenago ireki dela. Horri esker ere, oinezkoentzako sarbide batzuk beren ohiko bidea berreskuratu dute.

ORAINGO LANAK

• Hesia

Lan eremu osoa hasieratik itxi beharrez, lanok aurrera egin ahal izateko erabaki da, lan eremu hori isolatu eta auzotarrei traba gutxiago eragiteko bertatik igarotzen direnean. Gaur egun lan hauek eragindako hiri instalazioen desbideratze lanak egiten ari dira Andres Cortina kalean. Egundako San Nikolas plazako hesia ere behin behinekoa da. Gerora, behin instalazioen desbideratze lanak amaituta, hesia behin betiko lektuko da eta horri esker Andres Cortinako etxeetako aurrealdearekiko paraleloan doan oinezkoentzako pasabidea egokitu ahal izango da. Halaber, kale hori Algortako Etorbidearekin modu zuzenean lotzea ahalbidetuko du. Itxitura martxoan amaituta egongo dela uste da, aurrez egindako plangintza-aren arabera.

• Mikropilotajea

Obraren inguru osoa mikropiloteekin finkatzeko lanen %78 bat eginda dago. Lan-erritmo horri eutsiz gero, lan hauek aurreikusitako eguna baino lehenago amaituko dituzte.

• Hondeaketa

Lanak azaroan hasi ziren eraikinaren orubean ondoren plaza aldekoekin aurrera egiteko. Lan hauek hamahiru hilabetez luzatuko direla uste da, aurrera egin ahal izateko topatzen diren osagai naturaletan sorburu duten ezaugarri eta trabek, eta baita eguraldi txarrak lan baldintzatuko badiotuzte ere.

Hondeatze fase honetan egingo diren lanek eragingo dituzten saihestezinako arazoak –une zehatzetan sortuko den zarata, garbitasuna eta kamioien joan-etorriak lotutako arazoak– ahal den neurrian, eta beti ere legearen mugaren barruan jokatuz, arintzeko, zenbait jardura abiatu eta neurri hartu da. Hondeatze lanen abiadura planifikatutakoarekin bat dator.

Zehatz-mehatz



Musika Eskolak aurrealde beiratzatu gardena izango du, hala behar den bakoitzean, ikus-entzuleek musika entseguak eraikinaren kanpoaldetik entzutea ahalbidetzeko, plazan, San Nikolas elizako portada ondoan.

Getxo Antzokiari buruzko informazio bide berria jaio da

Getxo berri bat sortzen hasi da, indartsua, bizia eta aukeren sortzailea, Udala bultzatzen ari den jarduerak eta proiektu ugari eta baita udalez gaindiko gainontzeko erakundeekin batera aurrera eramaten ari direnak bultzatuta ere.

Getxo Antzoki berria, Romo Kultur Etxea, Biscaytik Zentro Teknologikoa, Maidaganen metroa lurperatzea, URA proiektua Gobel ibairako, Andra Marin ezintasunak dituzten pertsonentzako Heziketa eta Agiriaren Gestiorako Zentroa edo Areetako azokan Enpresen Haztegia dira jadanik murgilduta gauden udalerriaren eraldatze eta modernizazio proiektuaren adierazle nagusiak eta horien emaitzak nabariago hurrengo urteotan ikusiko dira.

Prozesu horren buruan lehen mailako ekipamendua izango den Getxo Antzokia dugu, hain preziazua eta izen handikoa den Getxoko kultur eskaintza ospetsu bihurtzea ahalbidetuko duena eta arlo horretan gure udalerriak Bilbo Metropolitanarreko eremuan Bizkaiko hiriburuaren baimenarekin duen lidergoa sendotuko duena.

Luis Maria Uriarte, egungo euskal arkitekto hobereenetariko dena gidatutako proiektu aparta da eta berak bere proposamen arkitektonikoan ekipamendu horren egungo eta etorkizuneko beharretarako erantzunak ematen jakin du. Behar horiek gure herritarren errealitatea ondo ezagutzen duten kultur gestore nabarmenek aztertu eta zehaztu zituzten bere egunean.

Beraz Getxorako ezinbesteko proiektua da. Udalerriko elkarten sarearen laguntza du eta gainera zalan-tzarik gabeko hirigintzako hobekuntzak ekarriko ditu, horien artean, plaza handiagorekin herritarren gozamenarako eta oztopo arkitektoniko gutxiagorekin, etorkizunean izango den jardueraren dinamizazio ekonomikoa ahaztu gabe.

Proiektu funtsezko eta beharrezko hori aurrera ateratzeko murgilduta gaudu eta bere garapenak duen konplexutasunagatik zailtasun batzuk ditu, bai egitura eraikitze berezitasunagatik eta zailtasunagatik bai lektutako den inguruaren ezaugarriengatik.

Egoera hori gainditzeko helburuarekin, Gobernu Taldean komunikazio bide hurbila eta erregularraren mantentzeko konpromisoa hartu genuen, gertuko auzokideekin zein herritar getxoztar guztiarekin. Konpromiso horren ondorioz, eta martxan jarritako beste ekimen batzuen osagarri izaten,

“Getxo Antzokia. Berriak” sortu da. Kaleratuko dugun informazio orria da eta sormenaren eta kulturaren garapenerako izango den gune bikain horren aurrerapenei buruzko informazio bide berri izatea nahi dugu.

Imanol Landa
Getxoko Alkatea

Bazenekien...?

... Getxo Antzokia berriaren aretoak 750 eserleku edukiko dituela? Eta Bizkaian antzoki nagusietako eserleku kopuruak honako hauek direla: Euskalduna Jauregiko auditorioak 2.164 eta aretoertainak 613 eserleku; Basauriko Social Antzokiak 733; Barakaldo Antzokiak 697 eta Santurtziko Serantes Kultur Aretoak 665 eserleku dituela?

... Getxo Antzokiaren kokapenaren ondoan dagoen Telefonicaren eraikina erosteko aukera enpresa horrekin aztertu eta kontrastatu zela aurreko legegintza-

dian positiboak ez ziren emaitzekin? Bilera eta elkaritzeta batzuen ondoren Getxo Antzokiari ahalik eta toki handien emateko interesa jakinarazi zitzaion enpresari baina horrek ez zuen erosketa burutu ahal izateko beharrezko interesik agertu.

... eraikinaren bolumentria eta kokalekua udal batzuan EAJren, PPre, PSEren eta EBren, alderdi guztien adostasunez, onartu zela? Eta martxan dagoen proiektua bultzatzeko udal batzako beste akordio batzuek ere EAJen eta PSE-EEn konpromiso argia dutela?

... Bazenekien lehiaketaren proiektu irabazlea aldatu egin dela eta inguruko auzokideen zein Kultur Elkarten eta Udaleko arkitektureko eta kulturako teknikariaren iradokizunak kontuan hartu dituela?

... Bazenekien, aldaketa horiei esker, beste abantaila batzuen artean gune publikorako lurzorua lortu dela eta maila bakar batean geratzeko den plazarako 700 metro koadro gehiago lortu direla? Eta inguruko auzokideei ahalik eta traba gutxien eragiteko proiektua lerrokatzetan doitu egin dela?



• Informazio-telefonoa: 944 466 01 05

• Posta elektronikoa: iradokizun@getxo.net